

# LIBURUEN WEB ARGITALETXEA

Mikel Egaña Aranguren (<http://mikeleganaaranguren.com>)

## 1.- Gizarte kontextua eta teknologia: proiektuaren zergatia

Internetek edukien kontsumoan paradigma aldaketa ekarri du. Alde batetik, komunikazioa ez da ekoizle zentral batetik kontsumitzaileera ematen, berdinen artean baizik (elkarbanatu, kontsumitu baino); bestetik, are garrantzitsuago, ekoizpenak ez dauka mugarik, ez baita kopia fisikoan oinarritzen. Paradigma berri horrek ugaritasunaren eta gehiegizko informazioaren kultura ezarri du. Txosten honetan kultura berri horretan bideragarria den liburuaren web argitaletxea garatzeko proiektua aurkeztuko dut.

Web sarea edukien kopiak musutruk egiteko muga gabeko makina da. Beraz, edukiak ekoizten dituzten enpresek ezin dute negozio eredia edukien kopien mugapenean oinarritu: besteriko balio erantsia eman behar diote ekoizten duten edukiari. Balio erantsi hori era ezberdinetan lor daiteke:

- Edukia kontsumitzeko erraztasuna: edukia erostea erraza eta merkea<sup>1</sup> izan dadila, edozein gailutan erabilgarria, kopiak elkar banatzeko baimenarekin eta DRM<sup>2</sup> bakoa.
- Egile eta irakurlez osatutako konfidantzazko komunitatea eratu, komunikazio aldetik (nork zer irakurri duen, egileekin komunikazioa) baina baita ere zilegitasun aldetik, hau da, kontsumitzaileak ordaintzen duenaren zati handia egileak hartzen duela jakitea (Argitaletxe gehienetan egileek kopia bakoitzaren ~10% soilik jasotzen dute).

## 2.- Web argitaletxearen ezaugarriak

### 2.1.- Web gunearen funtzioak

Web guneak bi funtzio nagusi izango ditu: liburuak saltzea (ikus 2.2 eta 2.3 atalak) eta irakurle eta egilez osatutako komunitate dinamikoa mantentzea (ikus 2.4 atala). Bi funtzioek elkar eragiten dute.

Webgunearen erabilgarritasuna helburu nagusia izango da, eta gailu ezberdinetan (sakeleko telefonoa, tableta, ...) erabili daitekeela bermatuko da. Halaber, edukia aurkitzea eta eskuratzea oso erraza izan behar da, ordaintzeko sistema ezberdinak eskainiz (Paypal, kreditu txartelak, bitcoin, ...) eta jaisteko protokolo egokiak (BitTorrent adibidez) implementatuz.

### 2.2.- Edukia

Webgunean kalitate handiko edukia argitaratuko da euskaraz, liburu edo komiki eran. Edukia denetarikoa izango da: saiakerak, literatura, dibulgazio zientifikoa, testu teknikoak,

---

1 Txosten hau idazten dudana bitartean zinema batzutan 3€tan ezarri dute salneurri berria eta %900 hazi da bezeroen kopurua. Kontsumitzaileak edukiagatik ordainduko dute ekoizleek begirunez tratatuz gero.

2 <http://eu.wikipedia.org/wiki/DRM>

hezkuntzarako materialak<sup>3</sup>, eta abar.

Bestalde, web guneak “txoko” berezi bat izango du, non edozein bazkidek (ikus 2.4 atala) berak sortutako liburuak plazara ditzakeen, inolako filtrorik gabe. 6 hilabetero bazkideek eta editoreek bozketa bat egingo dute txokoko liburu onenak hautatzeko eta liburuok web guneko bide arruntetik argitaratzeko, autorea egile bihurtuz (bazkide kontua mantendu dezake nahi izanez gero).

## 2.3.- Salneurriak eta lizentzia

Liburuak eta komikiak hainbat eratan eskuratzeko aukera egongo da:

- Bertsio elektronikoa, edozein gailutan irakurtzeko, DRM barik. Erosi daiteke (~2 €) edo musutruk jaitsi<sup>4</sup>.
- Bertsio fisikoa: bertsio fisikoa hainbat formatutan eta salneurritan eskainiko da: oso merkea (~5€), “deluxe” edizioa (~20€), edizio pertsonalizatua (~50 €), eta abar.

Liburuen lizentzia Creative Commons BY-NC-ND izango da orokorrean (hau da, ezin da liburu saldu ez aldatu, eta egilearen erreferentzia mantendu behar da) baina egileak nahi izanez gero beste argitaletxeek liburu saltzeko baimena emango da, beti ere Creative Commons lizentzia bat mantentzen bada eta, are garrantzitsuago, web argitaletxearen web gunearen helbidea argi eta garbi agertzen bada. Honela beste argitaletxeek publizitatea egiten dute, konpetentzia baino.

## 2.4.- Web gunearen erabiltzaileak

### Bezera anonimoa

Erregistratu barik liburuak jaitsi ditzake soilik.

### Bezera

Sisteman erregistratua dago, gutxienez email batekin. Hurrengo eskubideak dauzka:

- Liburuak erosi eta oparitu; sistemaren errekomenazioak jaso.
- Eduki eta ekitaldien gaineko berriak jaso.
- Beste bezeroak eta egileak erosten/irakurtzen dutena jarrai dezake (besteen baimenarekin), hau da, horien “laguna” bihurtu.
- Iruzkina egin: liburuen gainean, egileen gainean, egile eta bazkideen blogetan.
- Liburuak “txokoa” argitaratzea.

### Bazkidea<sup>5</sup>

Bazkidea sisteman erregistratua dago eta bezeroaren eskubideak ez ezik, hilero kuota bat ordaintzen duen legez (10€), hurrengo eskubide gehigarriak dauzka:

---

3 Hezkuntzarako materialak oso garestiak dira eta gutxi aldatzen dira urteetan zehar, gurasoen haserrea eraginez: hezkuntza material libreak jaitzeko aukera ematea gurasoak eta beraz balizko bazkideak erakartzeko bide ezinhobea da.

4 Proiektu honen muina ez da kopiak saltzea, irakurle eta idazleen komunitatea eraikitzea baino, diru gehiena beste bide batzuetatik lortzea, alegia (bazkideak, batez ere).

5 Eredu hau <http://eldiario.es> egunkariaren ereduari oinarritzen da.

- Bere iruzkinak bezeroen iruzkinak baino nabarmenduago agertzen dira. Iruzkin guztiak moderatu ditzake (+1/-1), bere blogean egindakoak izan ezik.
- Edukin berria bezeroek baino arinago jaso, eta %25 deskontua erosketa guztietan. 6 hilabetero berak aukeratutako liburu baten edizio fisiko berezia musutruk jaso.
- Bere gustoko egileekin komunikazio berezia izateko aukera, egileak nahi izanez gero (“chat” saioak edo mezu pribatuak adibidez).
- Argitaletxeak antolaturiko ekitaldietara joateko gonbidapenak (hitzaldiak, liburu aurkezpen festak eta antzekoak).
- Blog bat web gunean edukitzeko aukera.
- Dirua zuzenean egileari emateko aukera, donazio moduan.
- Argitaletxean bazkideen dirua zertarako earbiltzen den jakitea.
- Liburuak “txokoan” argitaratzea eta txokoko liburu onenak hautatzeko bozketan parte hartzea.
- Web guneak API bidez sartzeko aukera izango du, hau da, programa berriak web guneko informazioa erabiliz sortzeko aukera. Bazkideek bakarrik izango dute aukera hau, eta bazkide bakoitzak “API key” pertsonala jasoko du, nahi izanez gero.

## **Egilea**

Egileek liburuak ekoizten dituzte, hurrengo eskubideekin:

- Bere iruzkinak bezeroen iruzkinak baino nabarmenduago agertzen dira. Ezin ditu bere liburuen gaineko edo bere blogean egindako iruzkinak moderatu, baina beste guztiak bai.
- Blog berezi bat webgunean edukitzeko aukera.
- Liburuak “txokoan” argitaratzea.
- Liburuak zuzenean argitaratzea (editore baten oneritziz).
- Saldutako kopia bakoitzaren irabaziaren 50% eskuratuko du, eta bazkideen donazioak jaso ditzake (Argitaletxeak donazio bakoitzaren %10 jasoko du).

## **Editorea**

Editoreak empresaren jabeak dira, eskubide guztiekin baina bereziki:

- Txokoko liburu onenak hautatzeko bozketan parte hartzea.
- Sistemaren egile eta egile berrien liburuak zuzenean argitaratzea, txokotik pasatu barik.
- Blog berezi bat webgunean edukitzeko aukera.
- Iruzkin guztiak moderatu, bere blogean egindakoak izan ezik. Bereziki kaltegarriak diren iruzkinak kendu ditzake, moderazio gabe.